

---

“Gure Ondarea  
QR-tuz”

-----  
“QR-teando”  
nuestro  
Patrimonio

---

NIE-  
Nafarroako Ikastolen Elkartea  
Federación Navarra de Ikastolas  
2016/12/02



# “Gure Ondarea QR-tuz”

## Proiektuaren helburuak

Proposamen honen xedea da pertsonak txikitatik hirtar erresponsableak izan daitezen. Erresponsableak bere ingurugiroarekin, begirunetsu naturaren elementuekin, bere herriko eraikuntza historikoekin, arkitekturarekin, bere ondarearekin. Azken finean, pertsona jakitunak eta ondarearekin arduratsuak heztea dugu helburu.

**Gure Ondarea QR-tuz** proiektuak arazo erreal bat planteatzen du (erdi-go mailako zailtasunarekin), zeinean ikasleek curriculumaren arlo ezberdinetako konpetentzien inguruan ikasitakoa, prozedurak, jarrerak... (Euskara, ingelesa, gaztelania, ingurunearen ezaguera, IKT-ak...) erakutsi behar dituzte aipatu arazoa bideratzeko.

**Gure Ondarea QR-tuz** proiektuak zenbait lanez osatutako sekuentzia didaktikoak planteatzen dituzte, honako helburuak bilatuz:

- Lortutako ezagutzak aplikatzea,
- Lortutako ezagutzak arlo ezberdinetan integratzea,
- Ikasleen erabilera-testuinguru inportanteetan aplikatzea.

Proiektu hauekin ikastolek nahi duguna da Delors txostenak planteatzen duen hezkutzaren lau pilareen gararapenean lagundu eta ikastolak izatea bizitzarako eskolak, non ikasleek:

- izaten ikasiko duten,
- ezagutzen ikasiko duten,
- egiten ikasiko duten, eta
- lagunartean bizitzen ikasiko duten.

## Proiektuaren deskribapena

Lehen Hezkuntzako 6. mailako edo/eta DBHko 1. mailako ikasleek bere herrian edo bailaran identifikatu dituzte 5-6 elementu adierazgarri, elementu arkitektoniko zein ingurugirokoari dagozkionak. Informazioa bilatu eta bildu dute. Aukeratutako elementua era garbiaz deskribatu dute. Horren garrantziaz jabetu dira. Informazioa hiru hizkuntzetan gutxienez, bai euskarri idatzian zein ahozkoan osatu da (euskara, gaztelania, ingelesa eta zenbait kasutan frantsesa eta alemanera) eta QR kodigoen bidez publikoaren esku jarri da.

## Emandako urratsak

- Proiektua pentsatu eta bideragarritasuna aztertu.
- Diseinatu
- Informatika arduradunen mintegian mahairatu
- Zuzendarien mintegian mahairatu

- Hauek bere ikastoletan 6.mailako ikasleekin landu
- Principe de Viana egokitasuna adostu
- Iruñeko Artzapezpikutzarekin adostu
- PVko difusiorako deialdian parte hartu eta diru-laguntza lortu
- Udaletxe ezberdineei edo partikularrei baimenak eskatu
- Proiektua aurrera eraman
- Difusioa eman

## **Erakunde ezberdinen partaidetza**

Parte hartu duten erakundeak:

- A. Príncipe de Viana (Ondasun zuzendaritza, Jesús Ascunce bere garaian eta gaur egungoa, Carlos Martinez)
- B. Príncipe de Vianako Kulturako zuzendaritza orokorra, sormena eta zabalkunderako atala (2016ko zabalkunderako deialdia)
- C. Iruñeko Artzapezpikutza (bereziki ekonomoa den Carlos Ayerra jauna)
- D. Ikastolak dauden herrietako Udaletxeak
- E. Nafarroako Ikastolen Elkarte (NIE)
- F. Ikastolas de Navarra (zuzendaritza eta proiektu arduraduna).

## **Proiektua aurrera eramateko arrazoiak**

- Prestatutako formatoak ahalbidetzen ditu publiko guztiaren irisgarritasuna, izan ere hizkuntz ezberdinak erabiltzen dira. Informazioa: era bisualean (idatzizkoan zein argazkiak), eta entzunezkoan.
- Nafarroako ondarea zabaltzeko aukera ematen du, izan ere eleanitza denez, atzerritar askorengana iristen ahal da.
- QR formatoa teknologi berriekin lotzen den hizkuntza berria dugu, ikasleak ere ikasten dutena.
- Proiektuak inpaktua dauka, izan ere 16 izan dira inplikatuak egon diren udaletxeak Nafarroatik barna. Herritar horientzat bereziki interesgarri izan daiteke.
- Nafarroak ondarea izugarri handia eta oso baliotsua naturari begira zein arkitekturari begira. Errealitate hori kanpokoek baloratzen dute etxeokoa aina – gehiago ez bada-. Lehenbailehen hezi behar ditugu gure seme-alabak ondare honen garrantziaz eta zaintzaren beharraz.
- Neska-mutilak, hiritartasun arduratsuan hezi nahi ditugu, arlo honetan ere bai. Beraiei gertuko elementuak aukeratzeko, baliotsuenak identifikatzeko, informazioa biltzeko eta ahoz komunikatzeko ardura emanez, ondarearen zaintzaren protagonista bihurtzeko ditugu. Txikitatik Nafarroako patrimonioaren jakitun eta zaintzaile bihurtzea da landu nahi izan den alderdia.
- Lan honetan jarraitzeko aukera ikusten dugu. Prozesu hau errepikatzen ahal da gure herrietako ondare guztia “QR”teatzen dugun arte!

## Proiektua zenbakitan












Osotara:











- 14 ikastola
- Ikasleak: 492
- Irakasleak: 60 (euskarazkoak, ingelerakoak eta Teknologi Berrien irakasleak).
- Sortutako artxiboak: 750
- Udaletxeak: 16













## Zabalkunderako Plana













- **Nafarroako gizartea orokorrean**
  - NIEko arduradunen eskutik prentsaurrekoa, egindako lana azaltzeko, inplikaturako instituziekin batera.
  - Triptiko informatiboak QR kodigoekin Turismo bulegoetan utziko direnak eta baita aukeratutako zenbait eraikuntzetan ere.
- **NIEko hezkuntza komunitatean**
  - Ikastola bakoitzean triptikoak banatu
  - Ikastolen aldizkarietan artikulua argitaratu
  - Ikastolen Elkarteko "Ikastola" aldizkarian argitaratu
  - NIEko sare sozialetan notizia argitaratu (webgunea, facebook, twitter)
- **Maila profesionalean**
  - Aldizkari espezializatuetan argitaratu (Aula, Hik Hasi...)
- **Ikastolan, familietan**
  - Bisita gidatuak antolatu eta bertan triptikoak banatu
  - Ikastola guztietako QR kodeak banatu

## Aukeratutako elementuak 2016an













QR KODEEN ZERRENDA		
IKASTOLAREN IZENA	MONUMENTOAREN IZENA	QR KODEA
ANDRA MARI IKASTOLA	ARBIZUKO DORREA <i>TORRE DE ARBIZU</i>	
	ITURMENDIKO JAUREGIA <i>PALACIO DE ITURMENDI</i>	
	KONTZEPZIO BASELIZA <i>ERMITA DE LA CONCEPCIÓN</i>	
	LAKUNTZAKO PIKOTA <i>PICOTA DE LAKUNTZA</i>	
	SAN MIGUEL SANTUTEGIA <i>SANTUARIO DE SAN MIGUEL</i>	
	ZAMARTZEKO MONASTERIOA <i>MONASTERIO DE ZAMARTZE</i>	
ARANGOITI IKASTOLA	AHUNTZEN ZUBIA <i>PUENTE DE LAS CABRAS</i>	
	ARBAIUNGO ARROILA <i>FOZ DE ARBAIUN</i>	
	BURDINBIDEKO ZUBIA <i>PUENTE DE LOS HIERROS</i>	
	IRUNBERRIKO ARROILA <i>FOZ DE LUMBIER</i>	
	LIDAIAKO ZUBIA <i>PUENTE DE LAÍDA</i>	













ARGIA IKASTOLA	ANDRE MARIA KATEDRALEKO EPAIAREN ATEA <i>CATEDRAL DE SANTA MARÍA</i>	
	EBROKO ZUBIA ETA TUTERAKO GAZTELUA <i>PUENTE DEL RÍO EBRO Y CASTILLO DE TUDELA</i>	
	HUARTEKO MASKESEN JAUREGI BARROKOA <i>PALACIO BARROCO DE LOS MARQUESES DE HUARTE</i>	
	RUA KALEA ETA ALMIRANTEAREN ETXEA <i>CALLE RUA Y CASA DEL ALMIRANTE</i>	
	SANTA MARIA MAGDALENA ELIZA <i>IGLESIA DE SANTA MARÍA MAGDALENA</i>	
ERENTZUN IKASTOLA	ANDRE MARIA ELIZA <i>IGLESIA DE SANTA MARÍA</i>	
	NAVARRO VILLOSLADA KULTUR ETXEA <i>CASA DE CULTURA NAVARRO VILLOSLADA</i>	
	SAN PEDRO ELIZA <i>IGLESIA DE SAN PEDRO</i>	
	UDALETXEA <i>AYUNTAMIENTO</i>	
	ZEZENEN BALKOIA <i>BALCÓN DE TOROS</i>	
GARCÉS DE LOS FAYOS	ANDRE MARIA ELIZA <i>IGLESIA DE SANTA MARÍA</i>	
	IRIBAS ETXARTEA ETA SAN NIKOLAS KAPERA <i>PATIO DE IRIBAS Y CAPILLA DE SAN NICOLÁS</i>	


	MENKOSEN JAUREGIA <i>PALACIO DE MENCOS</i>	
	MISERIKORDIA KALEA <i>CALLE MISERICORDIA Y SU ENTORNO</i>	
	TAFALLAKO ENPARANTZA NAGUSIA <i>PLAZA PRINCIPAL DE TAFALLA</i>	
IBAIALDE IKASTOLA	ETXE ARMARRIDUNAK <i>CASAS BLASONADAS</i>	
	LODOSAKO HAITZULOAK <i>CUEVAS DE LODOSA</i>	
	MAIRUEN ZUBIA <i>PUENTE DE LOS MOROS</i>	
	SAN GREGORIO ERMITA <i>ERMITA DE SAN GREGORIO</i>	
	SAN MIGUEL ELIZA <i>IGLESIA SAN MIGUEL</i>	
IÑIGO ARITZA IKASTOLA	ALTSASUKO INTXAURRONGO OSPETSUARI MONUMENTUA <i>MONUMENTO AL POPULAR NOGAL DE ALSASUA</i>	
	BATUEKO ITURRIA – OLAZTI <i>FUENTE DE BATUECO - OLATZAGUTIA</i>	
	BERNOAKO GALTZADA (URDAINGO GALTZADA) <i>CALZADA DE BERNOA (CALZADA DE URDIAIN)</i>	
	SAN PEDRO BASELIZA <i>ERMITA DE SAN PEDRO</i>	

	URDIAINGO ITURRIA <i>FUENTE DE URDIAIN</i>	
	ZIORDIKO JAUREGIA <i>PALACIO DE ZIORDIA</i>	
JASO IKASTOLA	FRANTZIAKO EDO ZUMALAKARREGI ATARIA <i>PORTAL DE FRANCIA O ZUMALACÁRREGUI</i>	
	FORUEN MONUMENTUA <i>MONUMENTO A LOS FUEROS</i>	
	IRUÑEKO UDALETXEA <i>AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA</i>	
	MAGDALENA ZUBIA <i>PUENTE DE LA MAGDALENA</i>	
	NAFARROAKO ARTXIBOA <i>ARCHIVO DE NAVARRA</i>	
LABIAGA IKASTOLA	BERAKO UDALETXEA <i>AYUNTAMIENTO DE BERA</i>	
	ITZEA ETXEA <i>CASA ITZEA</i>	
	KARNAXENEA ETXEA <i>CASA KARNAXENEA</i>	
	SAN MIGEL ZUBIA <i>PUENTE DE SAN MIGUEL</i>	
	ZELAIA BASERRIA <i>CASERÍO ZELAIA</i>	



LIZARRA IKASTOLA	NAFARROAKO ERREGE- ERREGINEN JAUREGIA <i>PALACIO DE LOS REYES DE NAVARRA</i>	
	ORDOIZKO GURUTZEA <i>CRUZ DE ORDOIZ</i>	
	RUA / ANDRE MARIA GAZTELUPEKOA <i>LA RÚA / SANTA MARÍA JUS DEL CASTILLO</i>	
	RUAKO SAN PEDRO <i>SAN PEDRO DE LA RÚA</i>	
	SAN MIGEL ELIZA ETA AZOKA ZAHARRA <i>IGLESIA DE SAN MIGUEL Y MERCADO VIEJO</i>	
PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA	ANTSO VI JAKINTSUAREN OROIGARRIA <i>MONUMENTO A SANCHO VI EL SABIO</i>	
	ATARRABIAKO PILATEGIA <i>BATÁN</i>	
	ERROILUA (ATARRABIAKO URKABEA) <i>ROLLO</i>	
	MOTZA ETXEA <i>CASA MOTZA</i>	
	TRINITATEKO ZUBIA <i>PUENTE DE LA TRINIDAD - ARRE</i>	
SAN FERMIN IKASTOLA	DESCALZOS KALEKO ITURRIA <i>FUENTE DE LA CALLE DESCALZOS</i>	
	GAZOLAZEKO GARBIKUNDE ANDRE MARIAREN PARROKIA <i>PARROQUIA DE NUESTRA SEÑORA DE LA PURIFICACIÓN DE GAZOLAZ</i>	

	MARIBLANKA <i>LA MARIBLANCA</i>	
	NABARRERIAKO PLAZAKO ITURRIA <i>FUENTE DE LA PLAZA DE LA NAVARRERÍA</i>	
	KONTSEILU PLAZAKO NEPTUNOREN ITURRIA <i>FUENTE DE NEPTUNO DE LA PLAZA DEL CONSEJO</i>	
	RECOLETAS PLAZAKO ITURRIA <i>FUENTE DE LA PLAZA DE RECOLETAS</i>	
	ZIZUR TXIKIKO SANJUANISTEN ELIZA <i>IGLESIA DE LOS SANJUANISTAS DE CIZUR MENOR</i>	
TANTIRUMAIRU IKASTOLA	"AITA DONOSTIA", OTEIZAREN ESKULTURA <i>"AITA DONOSTIA", UNA ESCULTURA DE OTEIZA</i>	
	BORDIENEA ETXEA <i>CASA BORDIENEA</i>	
	ONIN ERREKA INGURUKO ETXEAK <i>CASAS DEL ENTORNO DEL RÍO ONIN</i>	
	SAN MARTIN TOURSKOAREN ELIZA <i>IGLESIA DE SAN MARTÍN DE TOURS</i>	
	ZABALETA DORREA <i>TORRE ZABALETA</i>	
ZANGOZAKO IKASTOLA	LEIREKO MONASTERIOA <i>MONASTERIO DE LEYRE - YESA</i>	
	SAN ZOILO ERMITA <i>ERMITA DE SAN ZOILO - CÁSEDA</i>	

	<p>SANTA CRIZKO ERROMATAR HIRIA <i>CIUDAD ROMANA DE SANTA CRIZ - ESLAVA</i></p>	
	<p>XABIERKO GAZTELUA <i>CASTILLO DE JAVIER - JAVIER</i></p>	
	<p>ZANGOZAKO UDALETXEA <i>AYUNTAMIENTO DE SANGÜESA</i></p>	